

zakilixut

© Olariagak



Eider Goenaga | LASARTE - ORIA

ATZEKOZ AURRERA



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Lasarteko Kultur Etxean aurkeztu zuen Hik Hasik bideoa.

Pirata txikiak Barrabas petralaren kontra

Hik Hasik 20 abesti eta jolas bildu ditu Pirritxek, Porrotxek, pirata txikiek eta hainbat pertsona ezagunek egindako 'Jolasen Altxorra' filmean

Pirritx eta Porrotx euren arbaso piraten bidetara, Lasarteko Zabaleta auzoko pirata txikiekin, abentura bila. Itsasoak zeharkatuko dituzte, Jolasen Altxorra aurkitu arte. Bidean lagun mordoa izango

dute, baina baita etsai amorratu bat ere: Barrabas pirata petrala.

Barrabas berekoia da oso; umeak ez ditu maite, eta hamai-ka oztopo jarriko dizkie Pirritxi, Porrotxi eta gainerako pirata txikiei. Hala ere, arazorik ez dute izango oztopoak gainditzeko,

kantuak, jolasak eta lagun mordoa izango baitituzte traba guztiei aurre egiteko bidaide. Didier Mundutegi itsasgizonak eramango ditu piratak batetik bestera, baina berehala egingo dute topo Barrabas gaiztoarekin. Kanoiarekin pirata txikiek lurrera-

tzeko erabiltzen duten ontzia hondoratuko du Barrabasek, baina hori ez da oztopo Jolasen Altxorrerako bidean. Gozategi Anaiak taldeko hiru kideak eta Orioko arraunlariak prest dira Lasarteko haurtxoei laguntzeko; traineruari ontzia lotu, eta hor doaz gure piratak altxorren bila.

Umorerik galdu gabe, kantuan eta jolasean jarraituko dute piratek. Hurrengoan Barrabasek batetik bestera pasatzeko zubia suntsituko du, eta Edurne Pasaban mendigoizalearen laguntza izango dute igarotzeko; Juan Gorriti artistak zuhaitzetako goroldioari begiratuta iparra aurkitzen lagunduko die; Mikel Anestesia Kazalisek, berriz, gitarra jo eta altxor kutxaren giltza aurkitzen. Hala, Pirritxek, Porrotxek, Joxepi itsas-neskak eta

pirata txikiek euren helburua lortuko dute: Jolasen Altxorra bere egitea.

Haur jolasen bilduma

Hik Hasik atzo Lasarte-Oriako Kultur Etxean aurkeztutako *Jolasen Altxorra* filmaz ari gara; aurretik haurrentzako euskarazko jolasak bildu dituzten hainbat CD eta bideoen jarraipena. Haurrak, bai kalean bai ikastetxean, euskaraz jolastea du helburu, eta horretarako 20 kantu eta jolas jaso dituzte bideoan eta DVD formatuan. Ordubete pasatxo kantuan eta jolasean, aurreko urteetan *Haur-jolasen abestiak II* eta *III* musika zinta eta CDetan bildutakoak guztiak: Piraten abestia, Serafin mokofin, Katxiporreta, Barrabas, Pirata hankamotza eta beste pila bat.

